XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5499

259/2012 DEKRETUA, azaroaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012ko ekitaldiko aurrekontuko 9211 programan («Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak») eta 9311 programan («Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak») diru-sarrerak lortu direla-eta, 4222 programan («Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta 4226 programan («Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza») 53.646,99 euroko kredituak gaitzen dituena.

Hezkuntza, Kultura eta Kirolak Ministeriotik diru-sarrera osagarriak lortu dira (5.000 euro), hain justu ere Lanbide Heziketako eta Orientazioko Kalitatea eta Berrikuntzari buruzko Sariari (EAEko ikastetxe publikoei esleitua) dagozkionak.

Halaber, Europar Batasunetik 31.502,59 euroko diru-sarrera osagarriak jaso dira, hain justu ere, «Euskadin bizitza osoko ikaskuntza bultzatzen» izeneko proiektuari (PIALVI Europar Proiektua) dagozkion jarduerak garatzeko.

Azkenean, Etengabeko Hezkuntzarako Programa Europarraren markoan, OSA (One Step Ahead) proeiktua garatzeko, Regione Toscana-k eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sinatutako lankidetza-hitzarmena dela-eta, 17.144,40 euroko diru-sarrera osagarriak lortu dira.

Goian aipatutako kredituak –53.646,99 eurokoak– gaitzea eskatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Horregatik, dekretu honen bidez, kredituok gaitzen dira Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartu zuen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuko 82. eta 83. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko azaroaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	5.000

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian, kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	431.00	5.000

Euskal Autonomia Erkidegoan, «Kalitatea eta Berrikuntza Orientazioan eta Lanbide Heziketan» izeneko saria jaso duen ikastetxe publikoarentzako izango dira funtsak.

2. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4226	238.99	31.502,59

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian, kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	31.502,59

«EAEn bizitza osoko ikaskuntza sustatu» proiektuaren (PIALVI Europar Proiektua) garapena finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

3. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	17.144,40

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian, kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9311	441.49	17.144,40

Etengabeko Hezkuntzarako Programa Europarraren markoan, OSA (One Step Ahead) proiektua garatzeko diren jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 27an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.